

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN MANIFESTUA, SEXU ASKATASUNARI ETA SEXU DIBERTSITATEARI BURUZKOA

Maiatzaren 17an, Homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako eguna ospatzen dugu. Bizkaiko Foru Aldundiak berretsi gura du sexu-diskriminazioaren aurkako borrokan duen konpromisoa. Izan ere, diskriminazio horren funtsean beldurra eta ezjakintasuna baitaude.

Egia da azken urteetan aurrerapauso handiak lortu dituela LGTB taldeak mendebaldeko herrialde asko eta askotan, berdindu egin baitira zenbait lege eta eskubide. Dena dela, oraindik ere badago zer lortu gizartean, esaterako, orientazio sexualaren ondorioz sortutako indarkeria, munduko hainbat herrialdetan eragiten diena lesbiana, gay, bisexual eta transgeneroei.

Gaur egun, oraindik ere errudun gisa agerrarazten dira sexu portaera desberdinak, eta helduen sexualitate heterosexuala da sexualitate posible bakar, on, osasuntsu, normal eta legezko legez agertzen dena. Mendebaldeko sexualitatearen eskuliburua mugatuta dago, beraz, eta onargarritasun soziala, legitimitate morala eta legezko eskubideak galarazten dizkie gainerako sexu praktikei.

Egoera horren ondorioz, LGTB taldearen barruan ageri-agerikoa da jendaurrean adierazpen afektibo-sexualak egiteko beldurra eta fobia. Gay, lesbiana, bisexual eta transgeneroek askotan intimitatean eta sekretupean baino ez dituzte egiten adierazpen afektibo-sexualak, mendeetan zehar jasandako errepresioaren beldur, eta errepresio horiek gaur egun ere oso presente daude denok elkarrekin bizi dugun errealitate konplexuan.

Sexualitatea eta afektua ikusezin egiteko ahalegin hori da pertsonen sexu askatasunerako duten funtsezko eskubidea sistematikoki ukatzen dutenek erabiltzen duten tresna nagusia.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Giza eskubideei, orientazio sexualari eta genero-identitateari buruzko Deklarazioa” aldarrikatu zuen, eta horren bitartez eskatu nahi zuen LGTB izate hutsagatik pertsonak kriminalizatu edo zigortzen dituzten lege guztiak indargabetzeko, baina, deklarazio hori aldarrikatu arren, talde horretako pertsonen proposatutakoaren oso bestelako egoera bizi dute, eta erasoak pairatzen dituzte, heriotza zigorra artekoak batzuetan.

Egoera horren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du, eta manifestu hau aldarrikatu. Gainera, dei egiten die talde nahiz erakundeei eta gizarte osoari manifestu hau sinatu eta haren alde agertzeko, eta konpromisoa hartzeko, jarraian adieraziko diren premisak aintzat hartuta, Bizkaia bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitzeko.



1. Mundu osoan erabat despenalizatzeko eskatzea, hori baita herritar guztien artean benetako sexu askatasuna eta berdintasuna egotearen seinale. Bereziki kondentatzea LGBTB taldeko pertsonen aurkako heriotza zigorra oraindik ere sexu-askatasuna despenalizatu ez duten herrialdeetan, eta zigor horren aurka egitea.
2. Pertsonen duintasuna eta osotasun fisikoa —estatuetakoko gobernuen legeen bidez bermatu beharrekoak biak— errespetatzea.
3. Herritar guztiak errespetatzea, haien orientazio sexuala edozein dela ere.
4. Lanerako eskubidea bermatzea, sexuaren ondoriozko inolako diskriminaziorik gabe.
5. Espazio publikoan egindako adierazpen afektiboen ikusgarritasun publiko-soziala errespetatzea.
6. Aukera sexual bakoitzaren irudi duina sustatzea komunikabideetan, bai eta agerraldi kultural, sozial, artistiko, publiko eta abarretan ere.
7. Bakoitzak bere errealitate, esperientzia eta jarreratik abiatuta, gizarte anitzago, ireki eta integratzaileago baten alde lan egin dezala sustatzea, gizarte bat non orientazio sexuala ez den inorentzat oztopo izango.
8. Sexualitate anitzerako bidea egitea, mitorik gabe, konparaziorik gabe, inposiziorik gabe, eta sexualitate askearen —aukera eta orientazio sexualerako askatasuna barne— aurkako jokabide guztien kontra gaude.



MANIFIESTO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA SOBRE LA LIBERTAD Y DIVERSIDAD SEXUAL

El 17 de mayo de 2010 celebramos el Día contra la Homofobia, Lesbofobia y la Transfobia. Desde la Diputación Foral de Bizkaia, queremos reiterar nuestro compromiso en la lucha contra la discriminación de carácter sexual. Una discriminación basada fundamentalmente en el miedo y la ignorancia.

Es cierto que en los últimos años se han logrado grandes avances del colectivo LGTB en gran parte de los países occidentales donde algunas leyes y derechos han sido equiparados. Sin embargo, restan numerosas conquistas sociales que superar, como la supresión de la violencia generada a causa de la orientación sexual y que afecta en numerosos rincones del mundo a lesbianas, gays, bisexuales y personas transgénero.

Hoy en día, los comportamientos sexuales diferenciados siguen siendo culpabilizados y la sexualidad heterosexual y adulta se presenta como la única posible, buena, sana, normal y legal. El manual de la sexualidad occidental se ve así limitado, privando de aceptabilidad social, legitimidad moral y derecho legal al resto de las prácticas posibles.

Como consecuencia de esta situación el temor y la fobia a las manifestaciones públicas de carácter afectivo-sexual es palpable en el caso del colectivo LGTB. Gays, lesbianas, bisexuales y personas transgénero relegan muchas veces las manifestaciones de tipo afectivo-sexual a la mas estricta intimidad y secretismo, sintiendo temor por las represiones mantenidas durante siglos, muy presentes aún en la compleja realidad que compartimos.

Este exterminio de la visibilidad de la sexualidad y del afecto se convierte en una herramienta principal empleada por quienes niegan de forma sistemática el derecho fundamental de la persona a la libertad sexual.

A pesar de que la asamblea general de Naciones Unidas promulgó la “Declaración sobre Derechos Humanos, Orientación Sexual e identidad de genero”, un texto que en resumen llama a la derogación de toda ley que criminalice o sancione a las personas solo por ser LGTB, la realidad cotidiana de este colectivo es ciertamente distinta a la propuesta, con niveles de agresión tales que llegan a la pena de muerte.

Bajo este contexto, la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a la promulgación del presente manifiesto. Así mismo hace un llamamiento a colectivos, instituciones y sociedad general a que firme y apoye dicho manifiesto comprometiéndose mediante las siguientes premisas en la construcción de una Bizkaia más justa e igualitaria.



1. Exigir la total despenalización a nivel mundial como señal de auténtica libertad e igualdad sexual entre toda la ciudadanía. Especialmente condenar y luchar contra la pena de muerte a personas LGTB en los países que aún no han despenalizado la libertad sexual.
2. Respetar la dignidad personal e integridad física que deben ser garantizadas por las leyes gubernamentales de cada Estado.
3. Respetar a todo ciudadano y ciudadana sea cual sea su orientación sexual.
4. Garantizar el derecho al acceso al trabajo sin discriminaciones de carácter sexual.
5. Respetar la visibilidad público-social de las manifestaciones afectivas en el espacio público.
6. Promover una imagen digna de las diferentes opciones sexuales en los medios de comunicación, así como en manifestaciones de tipo cultural, social, artístico, público....
7. Promover desde nuestras diversas realidades, experiencias y actitudes a trabajar por una sociedad más plural, más abierta e integradora en la cual la orientación sexual no sea ningún obstáculo para ningún ciudadano o ciudadana.
8. Avanzar hacia una sexualidad diversa, sin mitos, sin comparaciones ni imposiciones, y oponernos a toda conducta que atente contra el libre ejercicio de la sexualidad, incluida la libertad de opción y orientación sexual.